

## **2007-05-24ko PREMIAKO EZOHIKO UDALBATZA**

Iruran, bi mila eta zazpigarren urteko maiatzaren hogeita lauan, arratsaldeko 20:50ean, udaletxeko udalbatza-aretoan, ohizko batzarra egin du Udalbatzak Marimi Ugalde Zabala alkatea buru duela.

Zinegotzi hauek izan dira bileran: M. Jesus Otaño Zumeta, Agustin Zubeldia Iraola, Jose Luis Olano Zubeldia eta Aitor Lasa Olalde.

Eugenio Loidi Garmendiak ezin etorria adierazi du.

Ez da etorri eta ez du ezin etorria adierazi: Gregorio Lasa Etxezarretak.

Udaleko idazkariak, Bittor Agirreurreta Murgiak, egin ditu idazkari lanak.

Alkateak irekitzat jo du saio publikoa; segituan, eta haren baimenarekin, idazkariak jakinarazi du bilera egitea badagoela, Toki Erregimeneko Oinarriak Arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legeak agindutako gutxieneko partaide-kopurua bertaratu baita.

### **LEHENBIZIKO GAIA**

#### **DEIALDIAREN PREMIAZKO IZAERA BERRESTEA.**

Alkateak, oraindik indarrean dagoen legealdiko azken egunak direla eta, ukitu behar diren gaien garrantzia eta hauen premia azaldu ondoren, udalbatzak erabaki du aho batez deialdiaren presazko izaera onartzea, korporazioko partaideen zilegizko gehiengo osoa osatzen dutenen aldeko botoarekin.

### **BIGARRENGO GAIA**

#### **AURREKO AKTAK ONARTZEA (07-04-26).**

2007ko apirilaren 26ko premiako ezohiko saioaren aktaren zirriborroa ikusita, aho batez erabaki du Udalbatzak onartzea.

## HIRUGARRENGO GAIA

### ALKATETZAREN DEKRETUEN BERRI EMATEA

- 2007-04-25eko 41/07 Dekretua: Aizpurua jatetxea eta tabernaren aurrean 8 mahai eta aulkiak ipintzeko baimen eskaria onartzen duena.
- 2007-04-25eko 42/07 Dekretua: Talleres Bidegain, S.A.-ak teilatua konpontzeko egindako baimen eskaera onartzea.
- 2007-04-25eko 43/07 Dekretua: SS-04121-R matrikula duen atoiaren (jai eta ospakizunetarako agertokia) aseguruia egitea.
- 2007-04-25eko 44/07 Dekretua: Naturgas Energia enpresak aurkeztutako faktura likidatzea.
- 2007-04-25eko 45/07 Dekretua: Udalaren 2006ko aurrekontuaren likidazioa onartuz.
- 2007-04-25eko 46/07 Dekretua: Dionisio Caballero Godoy-k egindako obra baimen eskaera onartuz.
- 2007-05-08ko 47/07 Dekretua: apirilari dagozkion fakturak onartzea, 27.008,05 €, bai eta osasun zentrorako altzariak eta batzar aretoko aulkiei dagokien 5.948,62 €ko faktura.
- 2007-05-08ko 48/07 Dekretua: Kasimiro Artetxe, Nekazaritza Egimendiren izenean trakzio mekanikozko ibilgailuen gaineko zerga ordaintzetik salbuesita edo libre egotea eskatuz egindako eskaera onartzea. 2007ko maiatzaren 3an hasiko da salbuespen egoera.
- 2007-05-09ko 49/07 Dekretua: Diru laguntza onartua dagoelarik, eta kontratu txikia denez, irisgarritasun planaren idazketa egiteko ADIR (BIZGORRE, SL) enpresak egindako proposamena onartu eta esleitzea.
- 2007-05-10ko 50/07 Dekretua: Lurra Promoción y Gestión SL-k egindako eraikitze baimen eskaera onartzea, aurkeztutako oinarrizko proiektuaren arabera eta hainbat baldintza gehituz.
- 2007-05-14ko 51/07 Dekretua: Luciano Lasa Balerdik, Irurako baserritarren izenean eta San Isidro eguna ospatzeko egindako dirulaguntza eskaera onartzea.
- 2007-05-15ko 52/07 Dekretua: Irurako Ikastola Kooperativa Elkarteak aurkeztutako oinarrizko proiektua eta "0" kotarainoko exekuzio proiektuaren araberako eraikitze baimena ematea onartuz.

- 2007-05-16ko 53/07 Dekretua: ezkontza egiteko Agustin Zubeldia Iraola alkateordea eskuordetzea.
- 2007-05-16ko 54/07 Dekretua: Lourdes Labaka Zabalak egindako jabetza horizontalaren konfigurazioaren baimen eskaera onartzea.
- 2007-05-09ko 55/07 Dekretua: Construcciones Fresneda SL-ri 6.405,29€-ko fidantza itzultzea.
- 2007-05-17ko 56/07 Dekretua: Jokin Iraola Elosegik egindako obra lizentzia eskaera onartzea Aldapagain eta Gazte-Alaiak guneen artean dagoen aireko telefono sarea kentzeko.
- 2007-05-17ko 57/07 Dekretua: Jokin Iraola Elosegik, Kikilau SL-ren izenean “Gaspar Enea” eta “Aldapagain” izendaturiko eremuei buruzko Xehetasunezko Estudioa aurkezten du. Hasierako onarpena ematen zaio eta GAOran bidali publikaziorako.
- 2007-05-17ko 58/07 Dekretua: Jokin Iraola Elosegik, Kikilau SL-ren izenean Kale Nagusia 8 eta 10 zenbakiak eraisteko lanak aurrera eramateko egin duen lizentzia eskaera onartzea.

## **LAUGARRENGO GAIA**

### **ONARTZEA, BADAGOKIO, LURRA PROMOCIÓN Y GESTIÓN, S.L.-EK AURKEZTUTAKO EXEKUZIO PROIEKTUA (ISIDRO ENEA GUNEARI DAGOKIONA).**

2006ko martxoaren 6ko bilkuran behin behineko onarpena eman zitzaion enpresa honek gune berdinari buruz aurkeztu zuen borondatezko birpartzelazioari. Ildo beretik, orain exekuzio proiektua aurkezten da, ondoren honen araberrako eraikitze lana egiteko. Honek 2/2006 legea, ekainaren 30ekoa, lurzoruari eta hirigintzari buruzkoa betetzen du eta Iñaki Etxeberria Izagirre udala aholkatzen duen arkitektuaren aldeko txostena jaso du. Alkateak laburpen bat egiten du zenbait plano erakutsiz.

Udalbatzak aho batez erabaki du Lurra Promoción y Gestión, S.L.-k aurkeztutako exekuzio proiektua onestea.

## **BOSGARREN GAIA**

### **ONARTZEA, BADAGOKIO, UDALTALDE21-EK TEKNIKARI BAT KONTRATATZEARI BURUZ EGINDAKO EKARPEN PROPOSAMENA.**

Udaltalde21-ek, 2007ko maiatzetik abendu arteko aurrekontua bidali du. Hemen aurreztutakoa, egiten den hirugarren proposamena da: aurrenekoa oker zegoen eta bigarrenean akatsak zuzendu ziren arren, hirugarren honek BEZa kontuan hartzen du. Teknikari honen kontratazioak suposatzen duen ekarpenari BEZa ezartzea ez dirudi bidezkoa eta hori aztertzen ari dira. Hala ere, proposamen honetan zerga hori kontuan hartzen duen kopuruaz gain, kontuan hartzen ez duena ere jasotzen da. Teknikariak berak jakinarazi duenez, arazoa azertu eta eztabaidatu ondoren, ziurrenik kopurua zergarik gabe ordaintzea egokituko zaio udal bakoitzari, hau da, bigarren proposamena izango da baliozkoa. Ordaintzearen aldeko jarrera baliozkoa suertatuko balitz, abendutik aurrera beste aukera batzuk aztertzerako jo beharko litzateke Udaltalde21-etik.

Egoera kontuan izanik, orain arteko proiektuak aurrera eramatea onuragarria denez eta kopuru biak ezagutuz, Udalbatzak aho batez erabaki du Udaltalde21-ek teknikari bat kontratatzeari buruz maiatzetik abendura arteko epeari dagokion ekarpen proposamena onestea.

## **SEIGARREN GAIA**

### **ONARTZEA, HALA BADAGOKIO, TOLOMENDI ELKARTEAREN FUNTZIONAMENDURAKO IRURAKO UDALALARI DAGOKION EKARPENAREN ORDAINKETA EGITEA.**

Tolosaldeko Landa Garapen Elkartek, "Tolomendi"k, 2007ko martxoaren 29an Tolosan ospatutako urteko Batzar Orokorrean, 2007. urterako Elkartearen aurrekontua onartu zuen. Banaketaren ondorioz, Irurako Udalarari 2.369,71 € ordaintzea dagokio elkartearen funtzionamendurako.

Agustin Zubeldia Iraolak dio ez zaiola elkarteari probetxu handirik ateratzen. Lehen aukera gehiago sortzen zirela, Irurarentzat egokiak ziren aukerak, baina azken aldian

elkarte honek garatzen dituen ildo nagusiak ikusirik, ez dela ezer probetxagarria sortzen. Bere iritziz, gerora ikusi egin beharko da zer egin. Denek iritzi honekin adostasuna azaltzen dute.

Honenbestez, Udalbatzak aho batez erabaki du Irurako Udalarari dagokion kopuruaren ordainketa egitea onartzea.

### **ZAZPIGARREN GAIA**

#### **ONARTZEA, HALA BADAGOKIO, LOATZO MUSIKA ESKOLAREN FUNTZIONAMENDURAKO IRURAKO UDALALARI DAGOKION EKARPENAREN BIGARREN ZATIA.**

Loatzo Udalerrien Mankomunitateko batzorde eragileak 2006ko abenduaren 15ean egindako ohiko bilkuran, bestean artean, 2007 ekitaldirako aurrekontua orokorra onartu zuen. Bertan, Irurako Udalak egin beharreko ekarpena erabaki zen: 40.187,30 €. Ordainketa bi epetan egitea erabaki zen. Lehenengo %50aren ordainketa martxoan egin zen eta bigarrenarena, ekainaren hamabosta baino lehen egitea aurrakusi zen.

Udalbatzak aho batez erabaki du Irurako Udalarari dagokion kopuruaren bigarren %50aren ordainketa egitea onartzea.

### **ZORTZIGARREN GAIA**

#### **ONARTZEA, HALA BADAGOKIO, EUDIMA ELKARTEARI EGIN BEHARREKO EKARPENA.**

EUDIMA elkarteak igorritako faxean dionez, Irurako Udalarari dagokion diru ekarpenak egin gabe daude 2.001, 2.003, 2.004, 2.005 eta 2.006 urteetan. Faxean jasotako dokumentuen arabera, 2.001 urteari 755€ dagokio, 2.003 urteari 1.050 €, 2.004 urteari 1.050 € eta 2.005 urteari 1.050 €. Guztira 3.905 € direlarik.

Alkateak azaltzen du nola baja eman ez dugunez korritzen-korritzen joan dela. 2.006 urtea ez digutela pasatu eta aipatutakoak likidatu gabe ditugula. Baja eman, bukatu, edo dena delakoa egitea pentsatu egin beharko dela dio.

Agustin Zubeldia Iraolak esaten duenez, 2.007. urteari dagokiona ez dute pasatuko jadanik zeren eta ez da ezer egiten. 2.006ari dagokionez ere ikusi egin beharko da zer egiten den.

Udalbatzak aho batez erabaki du, Irurako Udalari 2.001, 2.003, 2.004 eta 2.005 urteengatik dagokion diru ekarpenen likidazioa egitea onartzea, guztira 3.905 €.

### **BEDERATZIGARREN GAIA**

#### **ONARTZEA, BADAGOKIO, IKASTOLAK ESKATUTAKO FRONTOIAREN ERABILPENA BAIMENDU ETA ARAUTZEKO, IRURAKO UDALAK ETA IRURAKO IKASTOLA KOOPERATIBA ELKARTEAREN ARTEKO HITZARMENA.**

Idazkariak, berak prestatutako hitzarmen ereduak irakurtzen du. Alkateak proposatzen du, "Adosten dute" idazpurua duen hitzarmenaren zatiko bigarren adostasuna azaltzen den lerroaldearen amaierako esaldia aldatzea, "deskribatuko dira" dion tokian esaldia amaitu eta gainontzekoa kentzea. Aldaketa honek denon adostasuna jasotzen du eta, honenbestez, Udalbatzak aho batez erabaki du frontoiaren erabilpena baimendu eta arautzen duen hitzarmena.

### **HAMARGARREN GAIA**

#### **ONARTZEA, BADAGOKIO, IKASTOLAK ESKATUTAKO FRONTOIAREN ERABILPENA BAIMENDU ETA ARAUTZEKO, IRURAKO UDALAK ETA IRURAKO IKASTOLA KOOPERATIBA ELKARTEAREN ARTEKO HITZARMENA SINATZEKO AHALMENA ALKATEARI EMATEA.**

Udalbatzak aho batez erabaki du ikastolak eskatutako frontoiaren erabilpena baimendu eta arautzeko, Irurako Udalak eta Irurako Ikastola Kooperatiba Elkartearen arteko hitzarmena sinatzeko ahalmena alkateari ematea

Aztertzeke beste gairik ez dagoenez, 21:20an eman da amaitutzat bilera. Han esandako guztia aktan jaso eta idazkari nauzuen honek EGIAZTATZEN dut.